

“Futbol entrenatzaile ikastaroetarako neskontzako beka-deialdiaren” oinarriak

- Adin nagusikoa izan.
- Arabarra izatea edo Araban erroldatua izatea duela hiru urtetik.
- Arabian erroldatua ez bada: gaur egun monitore, kirol entrenatzaile edo Arabako klub, elkarte edo kirol eskola bateko kirolari federazio-lizentzia izatea; eginkizun hori bertako klub, elkarte edo eskoletan gutxienez hiru denboralditan bete izanaz gain.
- Beka-eskaera betetzea 2020ko irailaren 9a eta urriaren 10a bitartean.
- Behin ikastaroa egin ostean edo ikastaroak dirauen bitartean, beka eskatu duen pertsonak praktikak egingo ditu futbol talde batean, berak aukeratuko duen taldearen entrenatzailearekin batera. Praktikak egiteko talderik ez balu, taldea bilatzen lagunduko zaio.
- Arabako futbol federazioak exijitutako gutxienezko klase-kopurura joateko konpromisoa hartzea eta praktikak burutzea.
- Beka onartzearekin batera, bekadun pertsonak baimena emango dio Futbol Entrenatzaileen Arabako Eskolari ikastaroan izan duen parte hartzearen jarraipena helarazi diezaion Vital Fundazioari.
- Eskatzaileek aurreratu egin beharko dute ikastaroaren prezioa eta itzuli egingo zaie praktikak amaitzean, beti ere Vital Fundazioak egindako jarraipen txostena aldekoa bada.
- Kutxabanken kontu baten titularra izatea.
- Eskatzaileek, adin nagusikoak, egunean izan beharko dituzte Administrazio Publikoarekiko eta Seguritate Sozialarekiko zerga betebeharren ordainketak.
- Eskatzaileek Sexu Izaerako Delituen Ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- Behin ikastaroa eginda, ikastaroari buruzko memoria eta aukeratutako klubean praktikak egin izana jasoko duen txostena aurkeztu beharko dute.
- Aurretiaz zehaztutako konpromisoak bete ezean, eskatzaileak ez du jasoko Vital Fundazioak eskainitako laguntza-poltsa.